



AZPEITIA ETA AZKOITIKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, MUNOAUNDI AZTARNATEGIA KUDEATZEKO ETA FINANTZATZEKO.

Azpeitian, 2022ko maiatzaren 18an

BILDURIK

NAGORE ALKORTA ELORZA, Azpeitiko udaleko Alkate-Lehendakaria.

JAVIER ZUBIZARRETA ZUBIZARRETA, Azkoitiko udaleko Alkate-Lehendakaria.

Egintza honetan fede ematen du Olatz Eizagirre Orbegozo, Azpeitiko Udaleko Idazkariak.

.ESKU HARTU DUTE

NAGORE ALKORTA ELORZA andreak, bere jarduneko kargua betez, Azpeitiko udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, Azpeitiko Udalbatza Osoak **2022ko maiatzaren 3an** hartutako akordioaren arabera egintza honetan parte hartzeko ahalmena hartua. Aipatu erabakiaren ziurtagiria eranstean zaio hitzarmen honi **1. dokumentu gisa**.

JAVIER ZUBIZARRETA ZUBIZARRETA jaunak, bere jarduneko kargua betez, Azkoitiko udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, **2022ko maiatzaren 16an** hartutako erabakiaren arabera egintza honetan parte hartzeko ahalmena hartua. Aipatu erabakiaren jakinarazpena eranstean zaio hitzarmen honi **2. dokumentu gisa**.

Honenbestez, elkar behartzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, honako aurrerakinak azalduz.

AURREKARIAK

LEHENA.- Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek Munoandi mendian hainbat aztarna (harresiak, terrazak, ...) aurkitu zituzten 1995. Urtean. Burdin Aroko bizileku bat egon zitekeela pentsatu zen, eta hori egiaztatzeko, zundaketa batzuk egin ziren. Azaleratutako materialari esker, jakin ahal izan zen harresiz inguratutako gotorleku handi bat, Burdin Arokoa, egon zela bertan. Zeramika pusketaz gainera, burdin xafla bat eta brontzezko figura bat -azken hauek honelako aztarnategietan oso bakan agertzen diren materialak- aurkitu ziren.

Munoaundiko gotorlekua jasaten ari zen hondamendia gelditzeko, beharrezkoa ikusi esparru arkeologikoa monumentu multzo izendatzeko espedienteari hasiera ematea. Hain zuzen 234/2003 Dekretuaren bidez, Jaurilaritzaren Kontseiluak Azkoitia eta Azpeitian den Munoaundi barrube gotortuaren Eremu Arkeologikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratu zuen (EHAA 2003/10/16).

Bere aldetik, Toki-erakundeek, beren eskumenen alorrean eta kultur-ondareari buruzko legerian ezarritako esparruan, bi udalek elkarlanean Munoaundiko aztarnategia kontserbatzeko, ikertzeko eta bere balorea handitzeko programa antolatu zuten.

Programa hau fase ezberdinetan bideratu da. Lehen bi fasetan aztarnategia hobeto ezagutzeko, bi indusketa gune zabaldu dira helburu hauekin: babes-egiturak eta etxebizitzarekin loturiko guneak eta herriaren hilerria bilatzea. Horrez gain, aztarnategia ahalik eta hoberen kontserbatzeko neurriak hartu dira: lurrak esku publikoetan utziz, kontrolatutako pinu-mozketa eginez, aztarnategia itxiz, eta urteroko garbiketa lanak eginez. Ondarea bera, eta urtez urte egindako lana ezagutzeko bideak ere jarri dira, bai foiletoak, unitate didaktikoa, erakusketa eta ikerketa-artikuluaren bidez, eta jendean ondarea bera ezagutu dezan bisita gidatuak antolatu dira.

Ondarearen kokapena:

Munoaundi Burdin Aroko herri harresitua izen bereko tontorrean dago, Azkoitia eta Azpeitia Udalerrien lurraldeetan, bi udalerrien arteko muga delarik. Oso leku estrategikoan dago, inguruko bailararen kontrol zehatza baitu.

Hauek dira tokiaren koordenatuak:


UTM 30T ETRS89 557404,4779231,381 m



Azpeitiko Udala



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



**1. oinplanoa: Aztarnategiaren
kokapena. 1:80.000 eskala.**

**Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia,
Lurralde Informazioko Zerbitzua.**

Aztarnategia mendiaren goiko aldean dago eta 6,5 ha ditu. Harresi batek inguratzen du herria. Gaur egun harresi hori eraitsita dago eta lur azpian ia 2 metroko zabalera duen mendoitza besterik ezin dugu antzeman.



- 0.1. *argazkia: Munoaundi herri harresitua: harresiaren eta 2. Indusketa-eremuaren ikuspegi orokorra, hegoaldeetik. (Argazkia: Álvaro Martín 2021).*

Herri harresituak dituen eremu lauen artean, bi dira nagusi. Lehenengoan, harresiaren inguratzen dituzten bi terraza daude, ipar, ekialde, hego eta hego-ekialdean. Goikoak batez beste 4-5 metroko zabalera du eta beheko aldetik, euskarri bezala, harresiaren mendoitzak mugatzen du; behekoa txikiagoa da eta oraindik ia ikertu gabea. Bigarren zonalde laua goiko aldean dago, gailurraren azpian, hegoaldean. Orokorrean, aztarnategiaren eremu lauek gutxi gorabehera hektarea bat osatzen dute.

BIGARRENA.- Munoaundiren interes arkeologikoa eta ondare-mailak direla eta, merezi du ondare hori ikertzea, kontserbatzea eta bere balioa azpimarratzea. Horregatik, orain arteko esperientzian oinarriturik, eta xede horretara atxikitzen diren baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzeko Azpeitiko eta Azkoitiko Udalek elkarrekin aztarnategia kudeatzen jarraitzeko borondatea adierazi nahi dute, horretarako lankidetzaz hitzarmen berri bat sinatuz 2022-2025 epealdirako.

Lankidetzaz hitzarmen honen bitartez, 3. Fase batean orain arte gidari izan diren helburu berberak mantenduko dira: batetik, aztarnategiaren egiturak eta ezaugarriak aztertzea eta Gipuzkoan Burdin Aroko bizimoduak hobeto ezagutzea eta bestetik, garai horri buruzko ezaguera herritarrengan zabaltzea eta aztarnategia babestea, hau da, musealizazioarako oinarriak jartzea.

3. Fase honen oinarri honako dokumentu hau izango da “MUNOAUNDI HERRI HARRESITUAREN IKERKETA ARKEOLOGIKOAREN AURREPROIEKTUA 2022-2025”.

HIRUGARRENA.- Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak aurreikusten du bi administrazio publikoren edo gehiagoren artean hitzarmenak izenpetzea, eta horietan barne hartu ahal izango da bitartekoak, zerbitzuak eta baliabideak erabiltzea norbere eskumenez edo delegatutakoez baliatzeko. Ondorioz, administrazioen arteko hitzarmen hau izenpetzeko gaituta daude alderdiak, aipatutako legearen 47.2 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Azaldutako guztiagatik, alderdiek erabaki dute hitzarmen hau sinatzea, honako klausula hauek aintzat harturik.

ESTIPULAZIOAK

LEHENA. XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Azpeitiko eta Azkoitiko Udalen arteko lankidetzaz esparru bat ezartzea, beren udalerrietan kokatutako MUNOAUNDI aztarnategia kudeatzeko, eta ondare historiko artistikoa babesteko eskumena modu egokienean eskaini ahal izateko. Hori guztia, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa den apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1).21 artikuluen babesean.

BIGARRENA. MUNOAUNDI AZTARNATEGIA KUDEATZEKO ARDURA.

Azpeitiko eta Azkoitiko udaletako ordezkariak, hitzarmen honen bitartez, bi udalerrietan kokaturiko MUNOAUNDI aztarnategiaren eguneroko kudeaketari dagokion eginkizunak eta hirugarrenen aurrean ordezkaritza emateko enkargua **Azpeitiko udalari** egin diote. Bere gain izango da dagokion kontratazio espedientea tramitatzea 2017SPKL-ren arabera, eta urtez urteko jarraipena egitea hitzarmenaren epealdiak dirauen bitartean. Baita, bere gain izango da egitasmo hau finantzatzeko eskatu ahal izango diren diru-laguntzen tramitazioa.

Azpeitiko Udalak kudeaketa hori “MUNOAUNDI HERRI HARRESITUAREN IKERKETA ARKEOLOGIKOAREN AURREPROIEKTUA 2022-2025” dokumentuaren baitan egingo du.

Etorkizunerako lan proposamena Aranzadi Zientzia Elkarteak idatzi du Udalak 2020 ekitaldian tramitatu zen kontratu administratiboaren barruan (229K)

Ekitaldi bakoitzari dagokion lanak urtez urte definitu egin beharko dira oinarrizko dokumentuaren arabera. Materialaren analisisa eta ikerketak egingo dira, eta baita dokumentazio grafikoaren antolaketa ere. Ekitaldiaren amaieran jardueraren behin behineko txostena idatziko da. Landa-lanak uztaila eta abuztua bitartean egingo dira.

HIRUGARRENA: KUDEAKETAREN EXEKUZIOA, ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPEN TEKNIKOA

MUNOAUNDI aztarnategiaren kudeaketatik erator daitezkeen arazo, interpretazio, aldaketak, kudeaketa eta koordinazio lanen eskumena duen udaleko organo eskudunak ebatzi behar du, Jarraipen Batzordearen proposamena entzun ondoren. Ebazpen hauek jarduera bakoitza izapidetu duen udaleko zerbitzuek bideratuko dituzte.

LAUGARRENA: HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen Batzordea eratuko da eta hor egongo dira udal bakoitzaren bi ordezkari: Alkate-udal burua edo berak izendutako ordezeko zinegotzia, eta Kultura gaietarako Teknikari arduraduna edo bere ordezkoa. Halaber, Batzordeak egiten dituen bileretan zerbitzuaren koordinazioa burutzen ari den udalaren kultura-teknikariak parte hartuko du, fede publikoa emateko.

Organo horrek bere kideen gehiengoaren bidez hartuko ditu erabakiak, eta gutxienez sei hilabetetik behin bilduko da.

Ados egon ezean, desadostasun-agiria jasoko da, baino une horretan udalek hartzen dituzten erabakiak berehala exekutiboak izango dira.

Erabaki horiek administrazio-bideari amaiera emango diote eta berorien aurka administrazio-auzialdietarako epaitegian errekurtsioak jarri ahalko dira.

Jarraipen Batzordeari, berriz, zeregin hauek dagozkio:

- Batzorde honen helburu nagusia, MUNOAUNDI aztarnategia kudeatzeko urteko egitasmoa gauzatzeko kudeaketa eginkizunen bilakaera jarraitzea eta bilakaeran sor daitezkeen intzidentziak argitu eta erabakitzea da.
- Orokorrean, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, bi alderdien artean sortu daitezkeen gatazkak eztabaidatu eta bien arteko akordio bidez irtenbidea bilatzea.
- Era berean, Jarraipen Batzordearen ardura izango dira kudeaketaren jarraipena eta ikuskapen tekniko gaizatztea, baita kudeaketari eta koordinazioa hobetzeari buruzko proposamenak aurkeztea.

BOSGARRENA: INFORMATZEKO BETEBEHARRA

Hitzarmen hau betetzean sortzen diren administrazioko tramite guztiak garatzeari eta betetzeko buruzko informazioa emango dio dagokin udalak Jarraipen Batzordeari, organo honek egiten duen hurrengo bilkuran.

SEIGARRENA: EKARPENEN KALKULUA ETA ORDAINKETA



Azpeitia eta Azpeitiko udalek finantzatu dute MUNOAUNDI aztarnategiaren kudeaketa, udal bakoitzak egiten duen diru-ekarpenekin, hori guztia, klausula honetan xedatutakoaren arabera.

Udalen ekarpenak honako era honetan gauzatuko dira: Udal arduradunak urte amaieran dagokion kitapena kalkulatu eta helaraziko dio beste udalari.

Kitapena kalkulatzeko, kontutan hartuko dira zerbitzuarengatik egindako urteko ordainketak, udalerri bakoitzeko biztanle kopuruaren arabera banatuko direlarik. Era honetan, MUNOAUNDI indusketa arkeologikoaren zerbitzuaren kostua era proportzionalean zatituko da bi udalen artean, bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera. Kopurua zehazteko, kontuan hartuko da uneko ekitaldiko urtarilaren leko Estatuko Estatistika Institutuak (INE) biztanle errolda, edo hori oraindik jakinarazi gabe balego, aurreko urtekoa.

Azpeitiko eta Azkoitiko zerbitzu teknikoek emandako txostenak aintzat hartuta, eta, bere kasuan, Jarraipen Batzordean elkartu ondoren, dagokien diru ekarpena ordainduko dute 30 eguneko epean ordainagiria udaletxeko erregistroan aurkeztu denetik zenbatzen hasita.

Udalen atzerapena sei hilabete baino gehiagokoa bada, Azpeitiko udalak, orobat, hitzarmena desgiteko eta horren ondorioz sortzen diren kalteak jasotzeko eskubidea izango du.

ZAZPIGARRENA. HITZARMENAREN IZAERA ETA ARAUBIDEA

Hitzarmen honek administrazio izaera du. Administrazio publikoen arteko lankidetzaren hitzarmenei aplikatu beharreko antolamendu juridiko eta administratiboaren arabera interpretatu eta garatuko da.

Hitzarmen honek edo bere betearazpenak sor ditzaketen interpretazio arazoak Jarraipen Batzordeak ebatziko ditu.

ZORTZIGARRENA. HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA

Hitzarmenak ez dakar alderdi jarduleek euren eskumenei uko egitea ezta eskumenok aldatzea ere. Alderdi jarduleek hitzarmena sinatuz berez sortzen diren erantzukizunak soilik onartzen dituzte.

Kontratazio-, ondarezko edo beste edozein erantzukizun eskatzeko espedienteak izapidetuko ditu udal arduradunak, beste udalari audientzia emanaz. Hala ere, eta Munoaundi aztarnategiaren kudeaketa proiektu integral eta bateratua dela ahaztu gabe, udal bakoitzak izango du dagokion erabakia hartzeko ahalmena, bere udalerriaren esparruan.



Hitzarmenak, sinatzen den unetik, alderdi jarduleak behartuko ditu eta ondorioak izango ditu.

Hitzarmenaren iraupena, **LAU urtekoa** izango da, izenpetzen den unetik kontatzen hasita (2022tik 2025ra biak barne).

BEDERATZIGARRENA: HITZARMENA AZKENTZEA

Aurreko klausulan adierazitako indarraldia bukatzeagatik, edo suntsiarazi delako, azkenduko da hitzarmena.

Alderdietakoren batek hartutako konpromisoak ez baditu betetzen, besteak ahalmena izango du konpromiso hori betetzeko agintzeko edo hitzarmena suntsiarazteko eskatzeko.

Eta azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutakoek hau sinatu dute, ale bikoiztuan, goian adierazitako toki eta datan.